

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



Graduondokoa 2018-2019

**Komunitate, hiri eta politika eraldaketa
haurren autonomia eta parte-hartzearen bitartez.**

Francesco Tonucci-ren “la città dei bambini” nazioarteko proposamena.

innobasque
berikuntzaren
euskal agenzia

agencia vasca
de la innovación

Solasgune
komunitate eta hezkuntza

**Consiglio
Nazionale delle
Ricerche**



Haurren Hirien Sarea
Red of Children's Towns

Oinarrizko Informazioa

- Graduondoko hau (EHUko berezko titulua) 33 ECTS kreditukoa da.
- Modalitate erdipresentziala izango du: derrigorrezko sei edo bi asteburu -urritik ekainera bitartean- Leioan (Bizkaia) eta EHU-UPVko gela birtualean.
- Graduondokoak ere, amaierako lana eta praktikak edukiko ditu.
- Gaztelaniaz emango da eta euskararen presentzia sustatuko da.
- 1.650 euroko kostua du.

Nori Zuzenduta:

- Gizarte Hezkuntza, Magisteritza, Gizarte Langintza, Arkitektura, Osasuna, Hirigintza... arloetako profesionalak eta ikasle egresatuak.
- Osasunean, hirigintzan, Haur eta Gazterian, Parte-hartzean... ardura teknikoa edo politikoa duten pertsonak.

1. Aurkezpena.

Gaur egun, Francisco Tonuccik sortu eta gidaturiko “Haurren hiria” nazioarteko proiektua haurren parte hartzeari buruzko mundu osoko erreferenteetako bat da, eta haurrak parametro gisa jarriz gizarte eraldatzea planteatuko duten prozesu komunitarioak erreibindikatzen eta ahalbidetzen ditu.

Egitasmo hauen atzean hainbat profesional daude (hezitzaileak, gizarte langileak, irakasleak, osasun langileak, partaidetzako teknikariak, arkitektoak...), gune eta egituren eraldaketa horretan laguntzeko, harreman modu berriei bide emateko (konfiantza, interdependentzia, elkarrenganako babesa, erantzukidetasuna...), eta berezko esanahia duen lotura komunitarioa ezartzeko.

UPV/EHUk zuzenduko du graduondoko hau, CNR-Romako Francesco Tonucciren taldearekin, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin eta haurren hirien euskal sarea dinamizatzen diharduen Solasgune erakundearekin lankidetzan, agente horiei guztiei unibertsitateko prestakuntza emateko xedez.

Graduondoko honekin, hain zuzen ere, unibertsitateko prestakuntza eman nahi zaie agente horiei guztiei, eta horretarako adituak graduondoko moduluetako bakoitzean biltzen dituen programa akademiko bat diseinatu da.

2. Helburuak.

Orokorrak:

- Haurren ikuspegian oinarrituta gure espazio komunak eta harremanetarako egiturak eraldatuko dituen tokiko gobernuaren filosofia politiko berri bat ezagutzea, garapen pertsonal eta komunitarioa hobetzeko, Francesco Tonucciren “citta dei bambini” proposamena eredutzat hartuz.
- Politikaren, hezkuntzaren, hirigintzaren edota komunitatearen kudeaketarekin lotutako estrategiak gaitzea eta eskaintzea, autonomian, haurren parte hartzean eta haurren eta helduen arteko harremanean oinarrituta.

Espezifikoak:

- Haurrak eta hiria, eta haurren eta helduen arteko harremanak eraldatu nahi dituzten motibazioak, esperientziak eta ezagutzak ezagutu eta horiei buruz hausnartzea.
- Haurrei lekua eman eta gure hirietako osasungarritasuna eta bizigarritasuna hobetuko duten esperientziak antolatzeke, gauzatzeko eta ebaluatzeke gaikuntza ematea.
- “Umetasuna” parametro hartuko duten ekintza politiko, sozioedukatibo eta/edo urbanistikoekin zerikusia duten ikerketa prozesuak diseinatzea eta garatzea.

Sartzeko Profila:

- Diplomatura, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo unibertsitateko Gradua dutenak.
- Lan ibilbide eta titulazio jakin bat (lanbide heziketa, erdi mailako ikasketak...) duten pertsonak ere onartuko dira (akademia batzordeak aztertuko du haien profila).

Ebaluazioa:

- Asistentzia eta parte hartze aktiboa.
- Modulu bakoitzeko praktikak eta lana ondo betetzea.

3. Irakaskuntza Modalitatea.

Eskolak erdipresentzialak izango dira, ikasketa hauek egin nahi dituzten ikasle eta profesionalen beharrei erantzuteko, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatuko dira. Dena dela, aurrez aurreko eskolen heziketa gaitasuna ere kontuan hartuko da.

- **Eskola Presentziala.** Hilean asteburu batez (urritik ekainera), aurrez aurreko eskolak emango dira ostiral arratsaldean eta larunbat goiz eta arratsaldean, Leioako Irakasleen Eskolan eta Leioako Udalaren Ondizdorrean.

- **Eskola birtualetan,** bestalde, ikasleek elkarlanean ikasiko dute, irakasle talde baten tutoretzapean, UPV/EHUren online plataforman ariketak eginez.

Graduondokoan, halaber, **graduondoko amaierako lan** bat idatziko da gaiari buruz, eta **praktikak** egingo dira haur eta gazteekin jarduera edo programaren bat lantzen ari den udal edo gizarte heziketako erakunde batean.

4. Tutoretza Sistema.

Hasieratik, ikasle bakoitzari prozesurako tutore bat esleituko zaio (UPV/EHUko irakasle bat), eta ikasleek tutore horrengana joko dute graduondokoan sortzen zaizkien galderak, zalantzak edota beharrak argitzeko. Horrez gain, tutoretzen ordutegian biltzeko gune bat jarriko da, graduondokoak planteatzen

duen esparruko agente profesional bihurtzeko behar diren konpetentzia holistikoekin lotutako kontuetarako. Tutore horrekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa eta bulegoko telefonoa erabili ahal izango dira, baita GAUREn argitaraturiko asteko tutoretza ordutegia ere.

Graduondoko ikasle eta tutore bakoitzak eskura izango du gidaliburu bat, besteak beste honako hauek bilduko dituena: ordutegiak; irakasleak; moduluak (helburuak, edukiak eta bakoitzean egin beharreko lanak); moduluak emango diren lekua; metodologia; ebaluazio sistema; eta tutoretzen ordutegia. Informazio hori guztia, halaber, UPV/EHUren webgunean eta EgelaPI plataforman jasoko da.

Tutoretzapeko ikasle guztien beharrei eta eskaerei erantzute aldera, elkarlanean jardungo da graduondokoaren eta modulu bakoitzaren zuzendaritza akademikoarekin.

Zuzendaritza akademikoak egingo die lehenengo harrera ikasleei, tutore izango diren irakasle guztiekin batera, graduondokoa hastearekin batera egingo den saio batean.

Era berean, ikastaro edo modulu bakoitza hasi eta amaitzearekin batera, bilera bat egingo da ikastaro edo moduluaren arduradunarekin, graduondokoaren nondik norakoekin lotutako gaiei buruzko informazioa emateko eta hobetzeko proposamenak proposatu eta aztertzeko.


4.Prestakuntza Programa.

33 ETCS kredituak 6 modulo, ikerketa lana eta praktikeetan antolatzen dira. Modulo bakoitzaren gaiak, egutegia eta irakasleak postgradoko webean ikus daitezke.

Berezko tituluaren moduloak hurrengoak dira:

1. Haurren Tokia Hirian.
2. Haurren Hiriaren Nazioarteko Proiektua.
3. Ikerkuntza Ekintza.
4. Autonomia eta Mugikortasuna. Oinarriak eta Proposamenak.
5. Haur eta Nerabeen Parte-Hartzea.
6. Esperientziak.
7. Praktikak.
8. Ikerlana.

Umeen neurrirako herriak denen neurrirako herriak dira. Umetasunaren parametroa inklusiboa, osasuntsua eta eskubidezkoa da. Eta berezko hazkuntza iraunkorra, arduratsua eta eraldatzailea izan leike.



Haurren Hirian Sarea

#UmHerri16

“Hurrei hirian zehar mugitzeko autonomia itzultzea da Haurren Hiria proiektuaren helburuetako bat Haurrak kalean egotea osasungarria da haientzat, eta horrek, halaber, aukera ematen du gure komunitateetan loturazko eta konfiantzazko harremanak berreskuratzeko”

“Hurrek euren eragiten dieten gaietan parte hartzea, eskubide bat izateaz gain, beharrezkoa da. Hurrek hiriaren gobernamenduan manipulaziorik eta sinplifikaziorik gabe parte hartzea eta hurrei zintzo eta konpromisoaz entzutea onuragarria da bai haientzat bai komunitate osoarentzat”

“Haurrak ez dira pertsona edo herritar izateko proiektuak; pertsonak eta herritarrak dira, orain Pertsona osoak dira, ahaldunak, bakarrak... bakoitza era batekoa Guztiok bezala. Helduok ingurune osasungarriak sortu behar ditugu, guztiok elkarrekin izan gaitzen eta elkarrekin jardun dezagun.”

4. Prestakuntza Programa

1. MODULUA:

Haurren Tokia Hirian.

Konpetentziak:

1. Tokiko gobernuaren filosofia berri bat ulertzea eta ezagutzea: haurren eta nerabeen ikuspegian oinarrituta denontzako guneak eta harremanetarako egiturak eraldatuko dituen filosofia, alegia.
2. Haur eta nerabeen eta hiriaren arteko harremana eraldatu nahi duten motibazioak, esperientziak eta ezagutzak zein diren jakitea eta horiei buruz hausnartzea.
3. Gure komunitatean funtzio politikoak eta/edo gizarte heziketakoak betetzen dituzten helduen eta haurren arteko harremana hobetzeko estrategiak ematea.

Gaiak :

1. Haurtzaroaren eskubidea, gaitasuna eta beharra espazio komunean.
2. Umetasuna parametro gisa.
3. Haur eta nerabeen lekua tokiko gobernuan.
4. Asistentzia eta laguntza.

1. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	IRAKASKUNTZA MODALITATEA	DATA
Francesco Tonucci (CNR - Erroma)	Presentziala	2018/10/5-6
Eukene Fernandez (Solagune)	Presentziala	2018/10/5-6
Beatriz Nuin (Eusko Jaurlaritza-Osasuna)	Presentziala	2018/10/5-6
María del Mar Romera (APFRATO)	Presentziala	2018/11/2-3
Carles Alsinet ((Lleidako Unibertsitatea))	Presentziala	2018/11/2-3
Jaume Funes (Psikologoa eta Hezitzailea)	Presentziala	2018/11/2-3
Pedro Blanco (Solagune)	On-line	2018/10/6 2018/11/30
Israel Alonso (UPV/EHU)	On-line	2018/10/6 2018/11/30

Kredituak: 6 ECTS

2. MODULUA:

Haurren Hiria nazioarteko proiektua.

Konpetentziak:

1. Haurren Hiria proiektuaren oinarri teorikoa ulertzea.
2. Proposamenen eta eginiko jardueren berri izatea.
3. Estatuko laborategi eta sareek nola funtzionatzen duten jakitea.
4. Proiektuan landu beharreko baliabideak zein diren jakitea eta baliabideok aplikatzea.

Gaiak:

1. "Haurren Hiria" proiektuaren historia, garapena eta fundamentazioa.
2. Proposamenak eta ekintzak.
3. Sareak, laborategiak, baliabideak eta materialak.

2. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	IRAKASKUNTZA MODALITATEA	DATA
Antonella Prisco (CNR-Erroma)	Presentziala	2018/11/30-12/1
Goizalde Atxutegi (Innobasque)	Presentziala	2018/11/30-12/1
Eukene Fernandez (Solasgune)	Presentziala	2018/11/30-12/1
Daniela Renzi (CNR-Erroma)	On-line	2018/12/1-2019/01/18
Chiara Belingardi (CNR-Erroma)	On-line	2018/12/1-2019/01/18
Israel Alonso (UPV/EHU)	On-line	2018/12/1-2019/01/18

Kredituak: 3 ECTS

3. MODULUA:

Jardunaren gaineko ikerketa.

Konpetentziak:

1. Gizarte heziketan esku hartzeari buruzko ikerketaren tradizio historikoa ezagutzea.
2. Ikerketa prozesu ororen urratsak ulertzea.
3. Ikerketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egiteko datuak jasotzeko eta analisia egiteko teknika batzuk ezagutzea.
4. Teknologia informatikoak eraginkortasunez erabiltzen jakitea, heziketaren arloko ikerketan funtsezko informazioa edukitze aldera (datu baseak, legezko irizpideak, inpaktuaren adierazleak...).

Gaiak:

1. Hezkuntza ikerketaren oinarriak.
2. Gizarte hezkuntza Ikerketaren logika eta estruktura.
3. Datuen bilketa eta analisi teknikak.

3. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	I. MODALITATEA	DATA
Monike Gezuraga (UPV/EHU)	Presentziala	2019/01/18-19
Naiara Berasategi (UPV/EHU)	Presentziala	2019/01/18-19
Jone Aliri (UPV/EHU)	Presentziala	2019/01/18-19
Monike Gezuraga (UPV/EHU)	On-line	2019/01/19-2019/02/15
Naiara Berasategi (UPV/EHU)	On-line	2019/01/19-2019/02/15

Créditos: 3 ECTS

4. MODULUA:

Autonomia eta mugikortasuna. Proposamenak eta oinarriak.

Konpetentziak:

1. Haurren garapenarekin lotutako autonomiaren garrantzia identifikatzea.
2. Hurrek eta nerabeek hirian duten autonomia eta mugikortasuna sustatzeko estrategiak ematea.
3. Arlo honetako gizarte ekintzako esperientziak antolatzeke, gauzatzeko eta ebaluatzeke estrategiak diseinatzea.

Gaiak :

1. Autonomia eta mugikortasuna. Oinarriak.
2. Autonomia estrategiak eta proposamenak lehen haurtzaroan.
3. Eskolara Lagunekaz proposamena.
4. Jolasa (autonomoa) hirian.
5. Autonomía eta mugikortasuna nerabezaroan.
6. Harremanen eraldatzea espazio komunean.

4. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	I. MODALITATEA	DATA
Jose Luis Linaza (Autonoma Unibertsitatea)	Presentziala	2019/02/15-16
Elena Herran (UPV/EHU)	Presentziala	2019/02/15-16
Josean Castaño (Gaztematika)	Presentziala	2019/02/15-16
Jaume Bantulá (Ramon Llul Unibertsitatea)	Presentziala	2019/02/15-16
Pedro Blanco (Solagune)	Presentziala	2019/02/15-16
Manuel Delgado (Barcelona-ko Unibertsitatea)	Presentziala	2019/03/15-16
Patxi Cirarda (Eusko Jaurlaritza - Osasuna)	Presentziala	2019/03/15-16
Arkaitz Fullaondo (UPV-EHU)	Presentziala	2019/03/15-16
X. Cesar Mosquera (Concello Pontevedra)	Presentziala	2019/03/15-16
Julian Maguna (Solagune)	On-line	2019/02/16-2019/04/6
Eukene Fernandez (Solagune)	On-line	2019/02/16-2019/04/6
Israel Alonso (UPV/EHU)	On-line	2019/02/16-2019/04/6

Kredituak: 6 ECTS

5. MODULUA:

Haur eta Nerabeen Parte-Hartzea.

Competencias:

1. Haurren eta nerabeen parte hartzeari buruzko kontzeptuaren inguruan hausnartzea eta parte hartze hori nola gauzatu aztertzea.
2. Haurrek eta nerabeek hirian parte hartzeko estrategiak diseinatzea
3. Haurrek parte hartzeko esperientziak antolatzea, gauzatzea eta ebaluatzea; esaterako, haurren kontseiluak.

Gaiak:

1. Parte hartzea. Kontzeptua, paradigmak eta parte-hartze motak.
2. Parte-hartze proposamenak. Eskubideak, erantzukizunak eta herritartasuna.
3. Haurren Kontseiluak / Haurren eta nerabeen parte -hartzea zerbitzatu eta lagundu.

5. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	I. MODALITATEA	DATA
Joan Subirats (Barcelona-ko Unibertsitatea)	Presentziala	2019/04/6-7
Koldobike Uriarte (Eusko Jaurlaritza)	Presentziala	2019/04/6-7
Jaume Trilla (Barcelona-ko Unibertsitatea)	Presentziala	2019/04/6-7
Jose Luis Villena (Granada-ko Unibertsitatea)	Presentziala	2019/04/6-7
Eukene Fernandez (Solagune)	Presentziala	2019/04/6-7
Julian Maguna (Solasgune)	On-line	2019/04/7 - 2019/05/3
Pedro Manúel Martínez (UPV/EHU)	On-line	2019/04/7 - 2019/05/3

Créditos: 6 ECTS

6 MODULUA:

Esperientziak

Konpetentziak:

1. Gure komunitatean funtzio politikoak eta/edo gizarte heziketakoak betetzen dituzten helduen eta haurren arteko harremana hobetzeko estrategiak identifikatzea eta ematea.
2. Haurrei lekua egingo dieten eta gure hirien osasungarritasuna eta biziegokitasuna hobetuko duten esperientziei buruz hausnartzea.

Gaiak:

1. Erkidegoko ekintza eta proposamenak.
2. Espainiako eta Nazioarteko ekintzak eta proposamenak.

6. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK	I. MODALITATEA	DATA
HHSareko eta Euskal Herriko beste proiektu batzuk (autonomia, parte-hartzea, ikaskuntza, herri proiektzioa...)	Presentziala	2019/05/3-4 2019/05/24-25
Alfredo Hoyuelos (Nafarroako Unibertsitatea)	Presentziala	2019/05/3-4
Ester Ayllón (Huesca-ko Unibertsitatea)	Presentziala	2019/05/3-4
Juan Freire (XTRIBE / Ist.EuropeoDesign)	Presentziala	2019/05/3-4
Daniel Mancelle. (Pontevedrako Udaltzaingoa)	Presentziala	2019/05/3-4
Elsa Fuente (Unicef Euskadi)	Presentziala	2019/05/3-4
Zoe Neill RedHead (SummerHill)	Presentziala	2019/05/24-25
Elena Cruces (Imagine Elephants)	Presentziala	2019/05/24-25
Paz Posee (Granadako Parque Ciencia)	Presentziala	2019/05/24-25
Gorka Espiau (The Young Fundation)	Presentziala	2019/05/24-25
Julian Maguna (Solasgune)	On-Line	2019/05/3 - 2019/05/30
Karmele Artetxe (UPV/EHU)	On-line	2019/05/3 - 2019/05/30

kredituak: 3 ECTS

7. MODULUA:

Praktikak.

Egutegia: 2019/01/21 - 2019/05/31

- Praktiken hasiera: Urtarrilak 21eko astean zehar.
- Praktiken tutoretza: Maiatza.

8. MODULUA:

Berrikuntza/Ikerketa Lana.

Egutegia: 2019/01/18 - 2019/06/30

- Tutoretzapeko lanaren hasiera: 2019ko urtarrilaren 18an.
- Amaierako lanaren aurkezpena: Ekaina

7. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK - UNIBERTSITATEKO TUTOREA
Karmele Artetxe (UPV/EHU)
Nahia Idoiaga (UPV/EHU)
Aintzane Cabo (UPV/EHU)
Saioa Bilbao (UPV/EHU)

Kredituak: 4 ECTS

8. Modulua. Egutegia eta Irakasleak:

IRAKASLEAK - UNIBERTSITATEKO TUTOREA
Israel Alonso (UPV/EHU)
Monike Gezuraga (UPV/EHU)
Begoña Martínez (UPV/EHU)
Saioa Bilbao (UPV/EHU)
Pedro Manuel Martínez (UPV/EHU)

Kredituak: 5 ECTS

Zuzendaritza eta Batzorde Akademikoa

Zuzendaritza eta batzorde akademikoa irakasleen kontaktuz eta koordinazioaz arduratuko da, modulu bakoitzeko koordinatzaile bat izendatuz.

Zuzendaritza Akademikoa 2018/19:

. Israel Alonso Sáez
israel.alonso@ehu.eus
946014580
(Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Leioa, Bizkaia)
. Maria José Alonso Olea

Batzorde Akademikoa 2017/2018:

. Monike Gezuraga Mudarain
. Karmele Artetxe Sanchez
. Naiara Berasategi Sancho

www.haurrenheria.eus

<http://www.ehu.eus/eu/web/titulospropios/home> (Euskera)

<https://www.ehu.eus/es/web/titulospropios/> (Castellano)





eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO



Graduondokoa 2018-2019

Komunitate, hiri eta politika eraldaketa haurren autonomia eta parte-hartzearen bitartez.

Francesco Tonucci-ren “la città dei bambini” nazioarteko proposamena.

innobasque
berikuntzaren euskal agenzia / agencia vasca de la innovación

Solasgune
komunitate eta hezkuntza

Consiglio Nazionale delle Ricerche

